

Antiguako Txillardegi, historia luzeko etxea

Josu Tellabide Azkolain
Etnologo

Jose Luis Alvarez Enparantza intelektual donostiarra Txillardegia gaitzizena 1952. urte inguruan hartu zuen. Berak esan zuenez, euskal usadio zaharri jarraituz, sorlekuaren izena hautatu zuen. Izan ere, gurean, askotan, jaiotetxearen izena nagusitzen zaio senitarteko deiturari, eta Jose Luis «en pertenecidos de Chillardegui» delakoetan sortu zen.

Aurkitu dugun Txillardegia toponimoaren aipamenik zaharrena 1719. urtekoa da. Urte hartan Berwick-eko dukeak Donostia setiatu eta suntsitu zuen eta egin zituen kalteen ebaluazioaren zerrendan agertzen da Txillardegia. Izan ere, «la casería de Jacinto Echeverría llamada Chillardegui» delakoak 4.888 zilarrezko errealeko kalteak izan zituen. Badirudi Jacinto Echeverría jaun hura Donostiako Kale Nagusian bizi zela eta han etxe batean jabe zela, eta etxe hartan ere 2.400 errealeko kalteak izan zituela.

Garai haletan, Donostia Iruñeko elizbarrutiari lotuta zegoen, eta 1776. urtean Donostiako elizbarrutian «Plan Beneficial» bat egin zuten. Hor ere «Partido de Yvaetta»-ko «Parrochia del Antiguo»-ra lotua agertzen da Txillardegia baserria, eta parroquia horretan zituen sakramentu- eta hilobi-eskubideak.

XIX. mendean, 1824an, Donostiako etxe-jabeak dirua ematera behartu zituzten, bakoitzak bere ahalen arabera, «Voluntarios de la Libertad» delako soldaduak janzteko. Hor ere agertzen da Txillardegia. Garai hartan Clemente Riesgo izeneko jaun batena zen etxea, eta urtean 300 erreale ordaintzen zituen zergetan.

1832. urtean Clemente Riesgok jarraitzen zuen, itxuraz, jabea izaten, baina errenta zerrendetan «Chillardegui (Gazcue)» izenarekin azaltzen da. Miguel Gazcue merkataria Puyuelo kaleko eta Plaza Berriko bizpahiru etxeren jabe zen. Garai hartan bihurtu ote zen Txillardegiren jabe?

Hurrengo urteetan, lehenengo

guda karlistan, Txillardegia baserria erre eta suntsitu egin zuten berriro ere, 1840an.

Jose Luisek berak *Antigua 1900* liburuan kontatu duenez, Maria Luisa Gazcue y Rezola, Txillardegia baserriaren jabea, Elizondoko Braulio Iturria Allende-Salazarrekin ezkondu zen 1888. urte inguruan. Gazkuearrak aberatsak ziren eta Iturrietarrak are aberatsagoak. Haiak bihurtu zuten udako egoitza edo «*casa de campo*» ziuur asko XVII. mendean eraikitako baserri xume hura. Osorik berreraiki zuten; arkupe bat, kristalezko miradorea, parkea eta, lehenengo baserriaren baratzeak zeuden tokian, lorategi bat egin zituzten. Pareta batez inguratu zuten dena.

Madrilgo *La Época* aldizkarian, 1898ko uztailaren 9ko alean, berri bixi hau agertu zen: «*El Diputado de Cortes Sr. Caves vivirá durante la*

temporada veraniega en la casa de campo Chillardegui». Beraz, aberatsak aberatsen etxean gonbidatuta.

Garai hartan Kubako gerla gori-goriz zegoen, eta espainiarrak beldur ziren *yankiek* Donostiari ere eraso egingo ote zioten. Horregatik eraiki zuten, besteak beste, Monpaseko gotorlekua.

Maria Luisa Gazcue etxeakoandrea 1917. urtean hil zen. Ordurako alarguna zen.

Geroago, Marokoko gerla zela eta, Gurutze Gorriak Txillardegia ondoan zuten sendalekuan tokirik ez, eta jabeak berau eskaini zuten zaurituen egoitza izateko, 1921. urtean. Honela, odol-ospitale bihurtu zen, «Hospital Chillardegui» zeritzona. Alfonso XIII.a eta bere ama Maria Kristina sarri joan ziren hara zaurituak bisitatzen.

Txillardegia etxearen ondoan, Villa Juanita zegoen, XX. mendean hasieran eraikia. Langile etxea izan zen garai batean eta, Antiguako zaharrek Jose Luisi azaldu ziotenez, bertan prostitutak ere egoten omen ziren. Dena den, guztia 1828an bukatu zen, Antiguara «*Esclavas de Cristo Rey*» izeneko mojak etorri zirenean; Villa Juanita moja haien egoitza bihurtu zen, eta Txillardegiz ere jabetu ziren.

1935eko planoetan Txillardegia etxea oraindik agertzen da, baina 1946an ez da ageri dagoeneko.

Azkenik, mojak, 1956an, gaur ikusten dugun komentu berria egin zuten Villa Juanitako eta Txillardegiko orubeetan, eta komentuaren atzealdea (Txillardegiko lorategia zena) utzi eta zuhaitzez hartuta geratu zen, lehen-dabizi, gaur egungo lur azpiko apar-kalekua, eta gero, gaineko plaza egin zituzten arte.

Plaza berri hori Txillardegia izena zegokion, baina, tamalez, ez zen lortu eta *Gaskonia plaza* jarri zitzaion. Agintari batzuen iritziz, «kontsentsua» behar omen da. Non dira, ordea, kultura eta memoria? Habsburgo-Lorenako Maria Kristina gaur bizi-kalitz, plaza honek Txillardegia izena izango luke, zalantzarik ez edukil! Zer egin dugu antiguarrok gure historiako Txillardegia bezalako izen handiak gal daitzele meretz izateko eta, aldiz, Matia, esklabo trafikatzailen baten izena, auzoko kale nagusiari jartzeko?

Ahantzurak

Idazle bat hiltzen denean izaten da aipatuen. Edo ez. Aipatua izaten denean, askotan heriotzak ekarri dion famaren berpiztea deitoratu eta bizi bitartean egon den ahantzia salatzen da aipamena. Ni ez naiz errudun sentitzen idazle (edo sortzaile, kultur eragile, ospetsu) bat hiltzen denean gogora ekartzeagatik, ahantzuratik ateratzeagatik eta, bizirik ez dagoen arren eta aire zuria izan badezake ere, haren goraiamena egiteagatik. Zerbait pozgarria da eta, esanenuke, jendeak uste duena baino askoz bakanagoa.



JIRA
Angel Eroro

Ohikoena inork ez aipatzea, heriotza oharkabean joatea da, hainbeste non bizi bitarteko ahantzura deitoratzeko aukera ere egoten ez den. Ezin nuke adibiderik eman, nire burua gezurtatu gabe. Baina horrelakoak egon badaudela sinetsi beharko didazue.

Aurreko guztia orokorrean esan dut. Euskal arlora mugatuta, idazle bat hiltzen denean (eta haren heriotzaz oharitzeko aukera dugunean), ia beti berrietasun sentsazio batek hartzen nau, zeinen kultura gaztea (eta halaber subalternoa) garen salatzen duena. Ez gaude Parnasoan osatzen joatera ohituta. Adanismo horrek Armaut Oihenarten herioizaren 350. urteurrena, gaur, hain zuzen, betetzen dena, ez ikusi egitera ere garamatza.

Letra

Sentsazio bitxia izan nuen orain hurrengoan, ondo samar (aspalditik baina ez betidanik) ezagutzen dudan lagun baten eskuzko letra lehenengoz ikusi nuenean. Apurtxo bat biluziagotzen nuen, bera konturatu barik negarrez edo masturbatzen harrapatu izan banu bezala. Eta grafologiaren ideiarik ere ez daukat, baina pentsatu nuen halakoxea behar zuela hain pertsona iheskorren idazkerak: hizki txiki eta estuduna, berba-lik berbarako tarte zabalak zituen.



BIRA
Miren Amuriza

Sentipen haren bueltan fitzuli nintzen etxera eta halaxe jabetu, geroago eta jende gutxiagoren letra identifikatzen dudala. Gurasoenak ezagutzen ditut, beti-betiko lagunak, amamaren letra infantila, ikaskide ohienak... Baina egunerokoa inguruan ditudan beste askorenak ez. Salatari diskretua da eskuzko letra, norbere pulstua, aztarna, mugimendurik estuenetakoa; oinatz ilara bat elurretan.

Topatu izan ditut harrezkero umetako eskola-lagunak kalean, idazkera urduria zuten behingoa: berba birik behin txoi bat egiten zutenetakoa, boligrafoari indarrez sakatzeagatik paperean esaldien erliebake markatzen zituena. Burdinazkoa balitz bezala ziharduen, gogor plantan, berrearakastaren berri ematen eta nik neure kolkorako: «Bai, bai, esazu gura duzuna, baina badakit zelako idazkera daukazun». Azala ez bezala, letra nekez aldatzen baitzaigu urteak joan arren. Zerbaitagatik izango da.